

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joseba Chertudi Ikazuriaga

*Kortezubi,
Bizkaia (1948)*

Aurkibidea



Biografia



Jose Andres du jaiotzako izena, gerora Joseba (edo Joe). Kortezko baserrian jaioa, guraso biak Kortezubikoak ziren. Lau senidetan bigarrena, bost urte zituenean aita Ameriketara joan zen artzain (aurretik merkartzia-ontzi batean egon zen lanean). 9 urterekin fraidekume joan zen, pasionistekin: Gabirian eta Euban egon zen, guztira sei urtez; ondoren filosofia ikasketak egin zituen jesuitekin, Zumarragan eta Bilbon. 1970ean Inglaterrara joan zen ingelesa ikastera, pare bat urterako, gero Ameriketara joateko asmoarekin. 1972an joan zen (bere anaia Kepa 68an), Idahoko unibertsitatara ikasle. Filosofia ikasketekin jarraitu zuen. Boiseko euskaldunak elkarriketatzen ere aritu zen (Basque Oral History Project). 1975ean emaztea izango zuena ezagutu zuen (Elisabeth). Negozio ikasketei heldu zien. Arizonan eta Detroiten egon ostean, Madrilera joan zen Chrysler automobil lantegiarentzat lan egitera; hiru semeak bertan jaio ziren. Handik Holandara joan zen familia, eta 1988an Ameriketara bueltan, Boisera. Azken urteetan Kunan bizi izan dira.

Zintak

KOR-006

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarriketatzaillea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-11
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com